



296 EREDUA AURKEZTEKO DISEINU FISIKO ETA LOGIKOAK

ERREGISTROEN AZALPENA

Aitortzaile bakoitzeko, bi erregistro mota desberdin sartuko dira. Horiek lehen posizioetatik bereiziko dira irizpide hauen arabera:

1. mota: aitortzailearen erregistroa: identifikazio datuak eta aitortzearen laburpena. 1. motako erregistroaren diseinua, aurrerago atal hauetan eta foru agindu honetako eranskinean azaltzen dena.

2. mota: Jasotzailearen erregistroa. 2. motako erregistroaren diseinua, atal hauetan eta foru agindu honetako eranskinean aurrerago azaltzen dena.

Aurkezpenaren ordena erregistro motaren arabera izango da. 1. motarako, erregistro bakarra egongo da, eta 2. motarako, berriz, aitortzearen sartzen diren jasotzaileak adina erregistro

Eremu alfanumeriko eta alfabetiko guztiak ezkerretik errotatik idazteko dira oro har, eta eskuinaldetik zuriunez beteak agertuko dira. Hizki larriak erabiliko dira, karaktere berezirik gabe eta bokaletan azenturik jarri gabe.

Hizkuntzaren karaktere bereziak adierazteko ISO-8859-1 kodeketa erabiliko da. Horrela, «Ñ» letra 209 ASCII balorea izango da (Hex. D1) eta «Ç» letra (zedila maiuskula) 199 ASCII balorea (Hex. C7).

Eremu numeriko guztiak eskuinaldetik hasiko dira betetzen eta ezkerretik zuriunez beteak agertuko dira, zeinurik gabe eta trinkotu gabe.

Eremuaren azalpenaren bestelakorik esaten ez bada, eremu guztiak izango dute edukia. edukirik ez badute, eremu numerikoak zuriunez beteak dira, eta alfabetiko/alfanumerikoak zuriunez joango dira

Taldeko aurkezpena egiten bada (aitortzaile bat baino gehiago fitxategi berean) fitxategiaren lehen erregistro moduan zero motako erregistro bat aurkeztuko da, apartatu honetan bertan erregistro mota horretarako deskribatzen den diseinuari jarraituta. Horrek aurkezpena egiteaz arduratzen den pertsona edo entitatearen datuak jasoko ditu, eta derrigorrezkoa izango da pertsona edo entitate hori fitxategian aitortzaile bezala ere azaldu arren. Ondoren, lehen aitortzailearen datuak jarriko dira (1. mota), eta bere jasotzaileak gero (2. mota); jarraian, hurrengo aitortzailearen datuak adieraziko dira, eta horrela hurrenez hurren.



296 EREDUA

A. 0. motako erregistroa:

TALDEKAKO AURKEZPENA

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUEN AZALPENA
1	Numerikoa	ERREGISTRO MOTA «0» zenbaki konstantea.
2-4	Numerikoa	AITORPEN EREDUA «296» konstantea.
5-8	Numerikoa	EKITALDIA Euskarrian sartu diren aitortzen zerga ekitaldiko lau zifrak jarriko dira
9-17	Alfanumerikoa	AURKEZLEAREN IFZ Aurkezlearen IFZ jarriko da
18-57	Alfanumerikoa	AURKEZLEAREN DEITURAK ETA IZENA EDO SOZIJETATEAREN IZENA 1. motako erregistroan aitortzailearentzat adierazi den irizpide berberari jarraituz beteko da.
58-109	Alfanumerikoa	AURKEZLEAREN HELBIDEA Eremu hau bederatzitan banatzen da 58-59 SG: bide publikoaren siglak. 60-79 Bide publikoa: bide publikoaren izena. Alfabetikoa izan behar du eta, beraz, izenak zenbakiak dituenean hizkiekin adieraziko da (adibidez: maiatzaren 1a, ìmaiatzaren lehenaî idatziko da). Errepidea denean, km laburdura jarriko da bukaeran. 80-84 Zenbakia: Etxearen zenbakia edo puntu kilometrikoa (dezimalik gabe). Numerikoa izan behar du eta bost posiziotakoa. 85-86 Eskailera 87-88 Oina 89-90 Atea 91-95 Posta kodea: Aurkezlearen zerga helbideari dagokiona. Numerikoa izan behar du eta bost posizioakoa. 96-107 Udalerria: Hamabi posizio hartzen ditu. Izenak hamabi karaktere baino gehiago baditu, lehen hamabiak jarriko dira, artikulurik eta preposiziorik gabe. 108-109 Probintziaren kodea: 2. motako erregistroan probintziaren kodea eremurako adierazi den irizpide berberari jarraituta beteko da
110-114	Numerikoa	AITORTZAILEAK GUZTIRA Bost posizioko eremu numerikoa. Taldekako fitxategian guztira zenbat pertsona edo entitate aitortzaile sartu diren adieraziko da (1. motako erregistro grabatuen kopurua)
115-123	Numerikoa	JASOTZAILEAK GUZTIRA

Bederatzi posizioko eremu numerikoa. Taldekako fitxategian zerrendatu diren jasotzaile kopuru osoa adieraziko da.

124	Alfabetikoa	EUSKARRI MOTA Konstantea: "T"
125-173	Alfanumerikoa	HARREMANETARAKO PERTSONA Eremu hau bitan banatzen da: 125-333 TELEFONOA: Bederatzi posizioko eremu numerikoa. 134-173 DEITURAK ETA IZENA: 1. motako erregistroan aitortzailearentzat adierazi den irizpide berberari jarraituta beteko da.
174-500		ZURIUNEAK

* Edukirik ez duten eremu numerikoak zeroz bete behar dira.

* Edukirik ez duten eremu alfanumeriko eta alfabetikoak bete gabe utzi behar dira

* Eremu numeriko guztiak eskuinaldetik hasiko dira betetzen, eta ezkerraldeetik zeroz beteko dira.

* Eremuaren azalpenean kontrakorik esaten ez bada, eremu alfanumeriko eta alfabetiko guztiak ezkerraldeetik hasiko dira betetzen, eta eskuinaldeetik zuriuneak utziko dira. Hizki larriak erabiliko dira, karaktere berezirik gabe eta bokaletan azenturik jarri gabe.

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Ogasun eta Finantza
Departamentua



Diputación Foral
de Gipuzkoa
Departamento de
Hacienda y Finanzas

296 EREDUA

A 1. motako erregistroa:

AITORTZAILEAREN ERREGISTROA

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUEN AZALPENA
1	Numerikoa	ERREGISTRO MOTA «1» zenbaki konstantea.
2-4	Numerikoa	AITORPEN EREDUA «296» konstantea.
5-8	Numerikoa	EKITALDIA Aitortzen den zerga ekitaldiaren lau zifrak jarriko dira.
9-17	Alfanumerikoa	AITORTZAILEAREN IFZ Aitortzailearen IFZ jarriko da. Eremu hau eskuinaldeetik hasiko da betetzen, azken posizioa kontrol karaktereak hartuko du, eta ezkerreko posizioak zeroz beteko dira
18-57	Alfanumerikoa	AITORTZAILEAREN DEITURAK ETA IZENA EDO SOZIJETATEAREN IZENA

Pertsona fisikoa bada, jarri lehen deitura, tarte bat, bigarren deitura, tarte bat, eta izen osoa, ordena horretan nahitaez.

Pertsona juridikoak edo errentak esleitzen dituzten entitateak direnean, sozietate izen osoa jarri behar da, anagramarik gabe

Eremu honetan ezingo da inolaz ere merkataritza izenik jarri

58	Alfabetikoa	EUSKARRI MOTA Konstantea: "T"
59-107	Alfanumerikoa	HARREMANETARAKO PERTSONA Harremanetarako pertsonaren datuak. Eremu hau bitan banatzen da 59-67 TELEFONOA: 9 posizioko eremu numerikoa. 68-107 DEITURAK ETA IZENA: jarri lehen deitura, tarte bat, bigarren deitura, tarte bat, eta izen osoa, ordena horretan nahitaez.
108-120		ZURIUNEAK
121-122	Alfabetikoa	AITORPEN OSAGARRIA EDO ORDEZKO AITORPENA Aurkezten dena bigarren edo ondorengo aitorten bat denean, honako eremu hauetako bat beteko da derrigorrez: 121 AITORPEN OSAGARRIA: "C" jarriko da baldin eta aitorten hau aurkezteko arrazoia lehendik aurkeztutako ekitaldi bereko beste aitorten batean aipatu gabe utzi ziren ordainketak sartzea bada. 122 ORDEZKO AITORPENA: "S" jarriko da baldin eta aitorten hau aurkezteko arrazoia ekitaldi bereko aurreko aitorten bat baliogabetu eta erabat ordezteka bada. Aurreko aitorten bat bakarrik baliogabetu dezake ordezeko aitorten batek.
123-135		ZURIUNEAK
136-144	Numerikoa	JASOTZAILEAK GUZTIRA 9 posizioko eremu numerikoa. Jarri zenbat jasotzaile aitortu dituen guztira entitateak 2. motako xehetasun erregistroetan. Jasotzaile bera erregistro batean baino gehiagotan agertzen bada, zerrendaturik ageri den adina aldiz zenbatuko da. (2. motako erregistroen kopurua).
145-159	Numerikoa	ATXIKIPENEN ETA KONTURAKO SARREREN OINARRIA Jasotzailearen erregistroetan, "ATXIKIPENEN ETA KONTURAKO SARREREN OINARRIA" eremuetan, adierazi dien zenbatekoen batura algebraikoa jarriko da. Eremu hau bitan banatzen da: 145 ZEINUA: eremu alfabetiko hau beteko da baldin eta lehen aipatu den batuketaren emaitza 0 (zero) baino txikiagoa bada. Kasu horretan, "N" jarriko da. Gainerako kasuetan, eremu honen edukia hutsune bat izango da. 146- 159 ZENBATEKOA: 14 posizioko eremu numerikoa. Lehenago aipatutako zenbatekoa adierazi behar da, zeinurik eta zenbaki hamartarrik gabe Zenbatekoak eurotan jarri behar dira.

Eremu hau bitan banatzen da:

146-157 Atxikipenen oinarriek osatutako zenbatekoaren zati osoa.

158-159 Atxikipenen oinarriek osatutako zenbatekoaren zati hamartarra.

160-174 Numerikoa

ATXIKIPENAK EDO KONTURAKO SARRERAK

15 posizioko eremu numerikoa.

Jasotzailearen erregistroetan "ATXIKIPENAK ETA KONTURAKO SARRERAK" eremuan adierazitako zenbatekoen batura jarriko da, zeinurik eta zenbaki hamartarrik gabe

Zenbatekoak eurotan jarri behar dira.

Eremu hau bitan banatzen da:

160-172 Atxikipenen zenbatekoaren zati osoa.

173-174 Atxikipenen zenbatekoaren zati hamartarra.

175-189 Numerikoa

EGINDAKO ATXIKIPENAK ETA KONTURAKO SARRERAK

15 posizioko eremu numerikoa.

Jarri zeinurik eta zenbaki hamartarrik gabe, jasotzailearen erregistroetako "ATXIKIPENAK ETA KONTURAKO SARRERAK" eremuan adierazitako zenbatekoen batura osoa. Kontuan eduki behar da jasotzaile horiek (erregistroak) honako hauek izango direla: "GAKOA" eremuan "3"tik "25"era bitarteko balorea dutenak, edo "GAKOA" eremuan "1"edo "2" balorea dutenak, eta, aldi berean, "ORDAINKETA" eremuan "I" balioa dutenak

Zenbatekoak eurotan jarri behar dira

Eremu hau bitan bana tzen da:

175-187 OSOA. Numerikoa. Atxikipenen zenbatekoaren zati osoa.

188-189 HAMARTARRA. Numerikoa. Atxikipenen zenbatekoaren zati hamartarra.

190-500

ZURIUNEAK

- * Zenbateko guztiak positiboak izango dira.
- * Edukirik ez duten eremu numerikoak zeroz bete behar dira.
- * Edukirik ez duten eremu alfanumeriko eta alfabetikoak bete gabe utzi behar dira
- * Eremu numeriko guztiak eskuinaldetik hasiko dira betetzen, eta ezkerraldeetik zeroz beteko dira.
- * Eremuaren azalpenean kontrakorik esaten ez bada, eremu alfanumeriko eta alfabetiko guztiak ezkerraldeetik hasiko dira betetzen, eta eskuinaldeetik zuriuneak utziko dira. Hizki larriak erabiliko dira, karaktere berezirik gabe eta bokaletan azenturik jarri gabe.

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUEN AZALPENA
1	Numerikoa	ERREGISTRO MOTA "2" konstantea.
2-4	Numerikoa	AITORPEN EREDUA "296" konstantea.
5-8	Numerikoa	EKITALDIA 1. motako erregistroan posizio hauetarako adierazitakoa jarriko da
9-17	Alfanumerikoa	AITORTZAILEAREN IFZ 1. motako erregistroan posizio hauetarako adierazitakoa jarriko da.
18-26	Alfanumerikoa	JASOTZAILEAREN IFZ Jasotzaileak espainian esleitutako IFZ badu, identifikazio fiskaleko zenbakia jasoko da, abenduaren 17ko 47/2013 Foru Dekretuaren bidez onartutako Zerga betebeharrak formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamenduaren IV. Tituluan jasotako arauari jarraituz. Eremu hau eskuinaldetik hasiko da betetzen, azken posizioa kontrol karaktereak hartuko du, eta ezkerreko posizioak zeroz beteko dira.
27-35	Alfanumerikoa	LEGEZKO ORDEZKARIAREN IFZ Jasotzailea 14 urtetik beherakoa bada eta haren ordezkariak Espainian esleituta badauka IFZ, eremu honetan haren legezko ordzariaren (aita, ama, tutorea) identifikazio fiskaleko zenbakia jasoko da. Beste edozein kasutan, eremu honen edukia zuriuneak izango dira.
36	Alfabetikoa	F/J Jasotzailea pertsona fisikoa bada, "F" jarriko da, eta pertsona juridiko bat edo entitate bat izanez gero, berriz, "J"
37-76	Alfanumerikoa	JASOTZAILEAREN DEITURAK ETA IZENA EDO SOZIJETATE IZENA a) Pertsona fisikoak badira, lehen deitura, tarte bat, bigarren deitura, tarte bat, eta izen osoa jarriko dira, ordena horretan nahitaez. Jasotzailea adingabea denean, eremu honetan bere deiturak eta izena idatziko dira. b) Pertsona juridikoak eta errenten esleipen erregimenera bildutako entitateak badira, haien sozietate izen osoa jarriko da, anagramarik gabe.
77-84	Alfanumerikoa	ERREGISTROAREN IDENTIFIKATZAILEA EDO ORDENA ZENBAKIA Aitortutako erregistroa modu bakarrean identifikatzen du. Eremu hau aitortzaileak aukeratutako irizpidearen arabera bete daiteke (norberak sortutako kanpo gakoa, kode alfanumerikoa, sekuentzia korrelatiboaren zenbakia eta abar)
84-90		ZURIUNEAK
91-98	Numerikoa	SORTZAPEN DATA Errentaren sortzapena noiz gertatu den adieraziko da. Eremu hauetan banatzen da 91-92 EGUNA Numerikoa Bi posizio.

93-94 HILA Numerikoa Bi posizio
95-98 URTEA Numerikoa Lau posizio.

99	Alfabetikoa	IZAERA Jarri dagokion gakoa errentaren izaera kontuan hartuta (diruzkoa edo gauzen bidezkoa), honako zerrenda alfabetikoaren arabera: D. Diruzko errenta. E. Gauzazko errenta.
100-101	Numerikoa	GAKOA Errenta mota kontuan hartuta dagokion gako numerikoa jarri behar da, honako gako zerrendaren arabera: 1. Entitateen fondo propioetan parte hartzeagatik lortutako dibidendu eta bestelako errentak. 2. Kapital propioak hirugarrenei lagatzeagatik lortutako interesak eta bestelako errentak. 3. Kanonak honako hauek direla-eta: patenteak, fabrika edo merkataritza markak, marrazki edo ereduak, planoak, formulak edo isilpeko prozesuak. 4. Literatura edo arte lanen gaineko eskubideen kanonak 5. Zientzia lanen gaineko eskubideen kanonak. 6. Filmen gainean eta entzuteko zein ikusteko obra grabatuen gainean dauden eskubideen kanonak. 7. Industria, merkataritza edo zientzia esperientziei buruzko informazioen kanonak (know-how). 8. Programa informatikoen gaineko eskubideen kanonak. 9. Lagatzeko moduko eskubide pertsonalen kanonak (irudi eskubideenak, kasu). 10. Industria, merkataritza edo zientzia alorreko ekipoen kanonak. 11. Aipatu ez diren beste kanon batzuk 12. Kapital higigarriaren etekinak, kapitalizazio eragiketengatik eta biritza edo baliaezintasun aseguruaren kontratuengatik lortutakoak. 13. Kapital higigarriaren bestelako etekinak, aurrekoan aipatu gabeak 14. Ondasun higiezinen etekinak. 15. Jarduera enpresarialen errentak. 16. Laguntza tekniko emateagatik lortutako errentak 17. Jarduera artistikoen errentak. 18. Kirol jardueren errentak. 19. Jarduera enpresarialen errentak. 20. Lanaren errentak. 21. Pentsioak eta hartzeko pasiboak. 22. Administratzaileei eta administrazio kontseiluetako kideei emandako ordainsariak. 23. Berresaguru eragiketetatik eratorritako etekinak. 24. Itsas edo aire nabigazioko entitateak. 25. Bestelako errentak.
102-103	Numerikoa	AZPIGAKOA Jarri dagokion azpigakoa, atxikipena edo konturako sarrera kalkulatzeko kontuan hartu diren zirkunstantzien arabera. Ondoko zerrendari jarraitu behar zaio: 01.Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren 16/2014 Foru Arauaren 25. artikuluan ageri diren tasa orokorrak edo tributazio eskalak aplikatuta egindako atxikipena. 02.Hitzarmenetan jasotako mugak aplikatuta egindako atxikipena.

03.Barruko salbuespena (nagusiki Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren 16/2014 Foru Arauaren 14. artikulua), salbu 12 azpigakoan aipatutako kasuetan.

04.Hitzarmen baten ondorioz aplikatutako salbuespena.

05.Atxikipenik gabe, zergadunak edo bere ordezkariak alde zurretik ordaindu duelako zerga.

06.Aitortutako jasotzailea jabetza intelektualeko eskubideak kolektiboki kudeatzen dituen atzerriko entitatea da. Atxikipena egin du hitzarmenetan ezarritako zergapetze muga aplikatuta, edo salbuespena geratu da hitzarmenen bat aplikatuta, agindu honetako 6. artikuluan jasotakoaren arabera.

08. Aitortutako jasotzaileak atzerrian du egoitza eta Espainiako inbertsio kolektiboko erakundeen akzio edo partaidetzak merkaturatzen ditu. Hitzarmen batean ezarritako zergapetze muga aplikatu du atxikipena egiteko, baina muga hori txikiagoa da Ezegoiliarren Errentaren gaineko Zergaren 16/2014 Foru Arauaren 25. artikuluan jasotakoa baino, foru agindu honetako 7. artikuluan ezarritako prozedura bereziaren arabera.

09. Aitortutako jasotzaileak atzerrian du egoitza eta Espainiako inbertsio kolektiboko erakundeen akzio edo partaidetzak merkaturatzen ditu. Atxikipena egiteko, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren 16/2014 Foru Arauaren 25. artikuluan ezarritako dagoen karga tasa aplikatu du, foru agindu honetako 7. artikuluan ezarriako prozedura bereziaren arabera.

10. Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren 16/2014 Foru Arauaren 36.2 artikuluan aipatutako diru sarreram errenta esleipeneko erregimenean ari den entitate batek kide ez-egoiliar bati esleitutako errentari dagokionez egindakoa.

11. Aitortutako jasotzailea zergaduna da, eta ordaintzaileari egiaztatu dio Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren 16/2014 Foru Arauaren 32. artikuluan adierazitako prozedura erabili duela.

12. Kargarik ez duten bidaia gastuetarako dietak eta diru esleipenak (Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua onartzen duen martxoaren 30eko 439/2007 Errege Dekretuko 9. artikulua)

Aurreko zerrendako 06, 10 eta 11 azpigakoetan aipatutako kasuetan, beti berariazko azpigako horiek jarriko dira, gainerako azpigakoak kontuan hartu gabe.

104-116 Alfamerikoa

ATXIKIPENEN ETA KONTURAKO SARREREN OINARRIA

13 posizioko eremu numerikoa.

Atxikitzeko eta kontura sartzeko obligazioa kalkulatzeko kontuan hartuko den oinarria maiatzaren 17ko 11/2016 Foru Dekretuaren bidez onartutako Erregelamenduko 17. artikuluan jasotakoa izango da. Oinarri hori bat etorriko da Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren 16/2014 Foru Arauaren 23. artikuluan jasotakoaren arabera zehaztutako zerga oinarriarekin, eta foru arau horren 23.2 eta 32.7 artikuluetan jasotako gastu kengarriak kontuan hartu gabe.

Dena den, baloreak mailegatzeko eragiketarako egin direnean, hau da, "KODE MOTA" eremuan (2. motako erregistroaren 149 posizioan) "P" jarri bada, eremu honetan batura honen emaitza jarriko da: "MAILEGU EMAILEAREN ORDAINSARIA" eremuan (2. motako erregistroaren 191-202 posizioak) adierazitako kopuruak gehi "KONPENTSAZIOAK" eremuan (2. motako erregistroaren 203-214 posizioak) adierazitako konpentsazioak, atxiki beharrekoak.

104 ZEINUA. Adierazitako zenbatekoa negatiboa bada, inon bat jarriko da. Bestelako kasuetan, eremu hau zurienez beteko da.

105-116 ZENBATEKOA. 12 posizioko eremu numerikoa. Lehen adierazitako zenbatekoa zeinurik eta zenbaki hamartarrik gabe jarriko da.

Zenbatekoak eurotan jarri behar dira.

Eremu hau bitan banatzen da:

105-114 OSOA. Numerikoa: atxikipenen zenbatekoaren zati osoa.

115-116 HAMARTARRA. Numerikoa: atxikipenen zenbatekoaren zati hamartarra.

116-120 Numerikoa

ATXIKIPEN %

Kasu bakoitzean aplikatu den atxikipenaren edo konturako sarreraren portzentajea jarriko da. Atxikipen portzentaje aplikagarria Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren 16/2014 Foru Arauaren 25. artikuluan errenta motaren arabera ezartzen den karga tasarena izango da, eta zergapetze bikoitza saihesteko hitzarmen bat aplikatu behar bada, orduan Hitzarmen horretan finkaturiko muga aplikatuko da. Atxikipenik edo konturako sarrerarik ez bada egin edo errentak salbuetsita badaude barruko arauengatik edo hitzarmen bat aplikatzeagatik, % Oko portzentajea jarriko da. Foru arauaren 25.1.b) artikuluan jasotzen den zerga tasa aplikagarri duten pentsioak direnean, eskala hori urteko pentsioari aplikatuko zaio, eta hortik ateratzen den batez besteko tasa adieraziko da.

Eremu hau bitan banatzen da:

117-118 OSOA: numerikoa. Zati osoa: Portzentajearen zati osoa jarriko da (ez badu, jarri ZEROAK).

119-120 HAMARTARRA: numerikoa. Zati hamartarra: portzentajearen zati hamartarra jarriko da (ez badu, jarri ZEROAK).

121-133 Numerikoa

ATXIKIPENAK EDO KONTURAKO SARRERAK

13 posizioko eremu numerikoa.

"ATXIKIPENEN ETA KONTURAKO SARREREN OINARRIA" eremuan adierazitako zenbatekoari "ATXIKIPEN %" eremuan jarritako atxikipen edo konturako sarreraren portzentajea aplikatuz ateratzen den emaitza jarriko da "ATXIKIPENEN ETA KONTURAKO SARREREN OINARRIA" eremua negatiboa bada, eremu hau zeroz beteko da.

Zenbatekoak eurotan jarri behar dira

Eremu hau bitan banatzen da:

121-131 OSOA: numerikoa. Zati osoa: Portzentajearen zati osoa jarriko da (ez badu, jarri ZEROAK)

132-133 HAMARTARRA: numerikoa. Zati hamartarra: portzentajearen zati hamartarra jarriko da (ez badu, jarri ZEROAK).

134 Alfabetikoa

BITARTEKARIA

"1" eta "2" ordainketa gakoetarako soilik

Eremu honetan "X" bat jarriko da baldin eta aitortutako jasotzailea Espainian helbideratuta dagoen, bertan egoitza duen edo han ordezkaturik dagoen entitate bat bada, eta atxikipenari lotutako errentak besteren kontura ordaintzen baditu edo dagokion etekina edo errenta sortzen duten baloreen errentak gordailatu edo haien kobrantzaz arduratzen bada. Aipatu ez diren gainerako kasuetan, hau da, aitortutako jasotzailea Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergaduna denean eta eredu honetan aitortzen diren atxikipenak edo konturako sarrerak jasan dituztenean, eremu hau bete gabe utziko da.

135 Numerikoa

KODEA

"1" eta "2" ordainketa gakoetarako soilik

Eremu honetan jarraian zerrendatzen diren zenbakietako bat jarriko da "Jaulkitzailearen Kodea" eremuaren edukia identifikatzeko:

1. Jaulkitzailearen kodea IFZ bati dagokio.
2. Jaulkitzailearen kodea ISIN kode bati dagokio
3. Jaulkitzailearen kodea ISIN koderik ez duten atzerriko baloreei dagokie, zeinen jaulkitzaileak ez baitu IFZrik.

136-147 Alfamerikoa

Jaulkitzailearen Kodea

"GAKOA" eremuan (2.motako erregistroaren 100-101 posizioak) "1" edo "2" balioak jaso direnean bakarrik.

Eremu hori bete beharko da jaulkitzailea identifikatzeko

Oro har, ISIN kodea jasoko da, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak balio negoziagarriak eta beste finantza tresna batzuk kodeen egituran kodetzeko funtzioetan emandako uztailaren 28ko 1/2010 Arau Teknikoaren arabera konfiguraturua.

Balioek kado hau esleituta ez badaukate:

"Kodea" eremuan (135. posizioa) 1 jarri bada, jaulkitzailearen IFZ adieraziko da

"Kodea" eremuan (135. posizioa) 3 jarri bada, "ZXX" gakoa adieraziko da, eta "XX" herrialde jaulkitzailearen kodea izango da, indarrean dauden herrialdeen eta lurraldeen gakoan arabera.

Era berean, nazioz gairik ez duten erakundeek (Munduko Bankuak....) jaulkitako tituluen kasuan, ISIN koderik ez badute, "ZNN" jarriko da, eta "NN" izango dira indarrean dauden gako alfabetikoak.

148 Numerikoa

ORDAINKETA

"1" eta "2" ordainketa gakoetarako soilik

Jarri hurrengo zenbakietako edozein, aitortzaileak egin duen ordainketa kontzeptu hauetako batengatik egin duen adierazteko

1. Jaulkitzaile gisa
2. Bitartekari gisa

Atzerriko jaulkitzaileen baloreak ordaindu badira, 1 gakoa jarriko da (jaulkitzaile-atxikitzaile gisa).

149 Alfabetikoa

KODE MOTA

"1" eta "2" ordainketa gakoetarako soilik

Eremu honetan jarraian zerrendatzen diren letretako edozein jarriko da "BALORE KONTUAREN KODEA" eremuaren edukia identifikatzeko.

"C" Bezeroaren Kontu Kodearekin identifikatua (BKK).

"O" Bestelako identifikazioa.

"P": Apirilaren 6ko 2/2004 FORU ARAUaren bigarren xedapen gehigarrian erregulatutako baloreen mailegua (GAO, apirilaren 16koa).

150-169 Alfamerikoa

Balore Kontuaren Kodea

"1" eta "2" ordainketa gakoetarako soilik

Bete datu hau baldin eta eredu honetan aitortzen diren errentak edo kapital higigarriaren etekinak ematen dituzten baloreak entitate finantzario batek kobratu, administratu eta gordailatzen baditu. Beraz, aitortzailea ez bada era horretako entitate finantzario bat eremu hau ez da inolaz ere beteko. Eremu hau honela egituratzen da:

Entitatearen kodea: Lau digitu
Sukurtsalaren kodea: Lau digitu
Kontrol digituak: Bi digitu
Kontu zk.: Hamar digitu

"KODE MOTA"eremuan (2. motako erregistroko 149 posizioan)"P" jarri bada, balore maileguen kasuan maileguaren eragiketa zenbakia jarriko da eremu honetan.

170 Alfabetikoa

KOBRATU GABE

"1" eta "2" ordainketa gakoetarako soilik

Eremu honetan "X" bat jarriko da ekitaldian sortu diren errentak aitortzaileak ekitaldi horretan ordaindu ez dituztenean titularrak ez direlako kobratzera agertu. Eremu honetan iXi jartzen den guztietan, jasotzaile (erregistro) bereko gainerako eremuak honela beteko dira:

JASOTZAILEAREN IFZ: 999 999 999
ORDEZKARIAREN IFZ : 999 999 999
F/J: Edukirik gabe
DEITURAK ETA IZENA EDO SOZIJETATE IZENA: Ordaindu gabeko baloreak
BITARTEKARIA: Edukirik gabe
EGOITZA HERRIALDEA (KODEA): Edukirik gabe
KODEA: Dagokiona
JAULKITZAILEAREN KODEA: Dagokiona
GAKOA: Dagokiona
IZAERA: Dagokiona
AZPIGAKOA: Dagokiona
ORDAINKETA: Dagokiona
KODE MOTA: Dagokiona
BALORE KONTUAREN KODEA: Dagokiona
SORTZAPEN EKITALDIA: Edukirik gabe
SORTZAPEN DATA: Dagokiona
ATXIKIPENEN ETA KONTURAKO SARREREN OINARRIA: Dagokiona
ATXIKIPEN %: Dagokiona
ATXIKIPENAK ETA KONTURAKO SARRERAK: Dagokiona
MAILEGUAREN HASIERA: Dagokiona
MAILEGU-EMAILEAREN ORDAINSARIA: Dagokiona
MAILEGUAREN AMAIERA: Dagokiona
KONPENTSAZIOAK: Dagokiona
BERMEAK : Dagokiona

Jasotzaileari buruzko datuen informazioa ordaindu gabeko etekinak edo errentak ordaintzen zaizkion ekitaldiaren aitortzean aurkeztuko da. Horrelakoetan, etekinak edo errentak ordaindu diren ekitaldiaren aitortzean egitean, "SORTZAPEN EKITALDIA" eremuan etekin edo errenta horiek sortu diren ekitaldiaren lau zifrak jarriko dira, titularrak kobratzera ez agertzeagatik ordaindu ez diren ekitaldiarenak hain zuzen.

171-174 Numerikoa

SORTZAPEN EKITALDIA

"1" eta "2" ordainketa gakoetarako soilik

Aurreko ekitaldian sortu eta, titularrak kobratzera agertzeagatik, aitortzen den ekitaldian ordaindu diren etekin edo errenten sortzapean ekitaldiaren lau zifrak jarriko dira. Beste edozein kasutan eremu hau bete gabe utziko da.

175-182 Numerikoa

MAILEGUAREN HASIERA DATA

Baloreak mailegatu direnean bakarrik, hau da, "Kode mota" eremuan (2. motako erregistroaren 149 posizioan) "P" jarri bada, eremu honetan maileguaren hasiera data jarriko da. Urtearen lau digituak idatziko dira, hilaren bi digituak (01etik 12ra), eta egunaren bi digituak (01etik 31ra), UUUUHHEE formatuaren arabera beti.

Gainerako kasuetan, eremu honek ez du edukirik izango

183-190 Numerikoa

MAILEGUAREN AMAIERA DATA

Baloreak mailegatu direnean bakarrik, hau da, "Kode mota" eremuan (2. motako erregistroaren 149 posizioan) "P" jarri bada, eremu honetan maileguaren amaiera data jarriko da. Urtearen lau digituak idatziko dira, hilaren bi digituak (01etik 12ra), eta egunaren bi digituak (01etik 31ra), UUUUHHEE formatuaren arabera beti.

Gainerako kasuetan, eremu honek ez du edukirik izango.

191-202 Numerikoa

MAILEGU EMAILEAREN ORDAINSARIA

12 posizioko eremu numerikoa

Baloreak mailegatu direnean bakarrik, hau da, "Kode mota" eremuan (2. motako erregistroaren 149 posizioan) "P" jarri bada, eremu honetan mailegu-emailearen ordainsariaren zenbatekoa jarriko da. Eurotan adierazi behar dira zenbatekoak, zeinurik eta koma hamartarrik gabe.

Gainerako kasuetan, eremu honek ez du edukirik izango.

Eremu hau beste bitan banatzen da:

191-200 OSOA Numerikoa Zati osoa: Ordainsariaren zati osoa jarriko da (ez badu, jarri zeroak)

201-202 HAMARTARRA Numerikoa Zati hamartarra

Ordainsariaren zati hamartarra jarriko da (ez badu, jarri zeroak).

203-214 Numerikoa

KONPENTSAZIOAK

12 posizioko eremu numerikoa

Baloreak mailegatu direnean bakarrik, hau da, "Kode mota" eremuan (2. motako erregistroaren 149 posizioan) "P" jarri bada, eremu honetan konpentsazioen zenbatekoa jarriko da, atxikitzeko edo kontura sartzeko obligazioa izan edo ez. Eurotan adierazi behar dira zenbatekoak, zeinurik eta koma hamartarrik gabe.

Eremu hau beste bitan banatzen da:

203-212 OSOA Numerikoa Zati osoa: Konpentsazioen zati osoa jarriko da (ez badu, jarri zeroak).

213-214 HAMARTARRA Numerikoa Zati hamartarra:

Kompentsazioen zati hamartarra jarriko da (ez badu, jarri zeroak).

215-226 Numerikoa

BERMEAK

12 posizioko eremu numerikoa.

Baloreak mailegatu direnean bakarrik, hau da, "Kode mota" eremuan (2. motako erregistroaren 149 posizioan) "P" jarri bada, eremu honetan bermeen zenbatekoa jarriko da. Eurotan adierazi behar dira zenbatekoak, zeinurik eta koma hamartarrik gabe.

Gainerako kasuetan, eremu honek ez du edukirik izango.

Eremu hau beste bitan banatzen da:

215-224 OSOA Numerikoa Zati osoa: Bermeen zati osoa jarriko da (ez badu, jarri zeroak).

225-226 HAMARTARRA Numerikoa Zati hamartarra:

Bermeen zati hamartarra jarriko da (ez badu, jarri zeroak).

227-288 Alfamerikoa

JASOTZAILEAREN HELBIDEA

Jasotzailearen helbidea jarri behar da, egoitza herrialde edo lurraldean duena.

Eremu hau bitan banatuta dago:

227-276 HELBIDEA/ADRESS: Helbidearen datuak jarri behar dira eremu honetan: bide mota (kaleam plaza, hiribidea, errepidea, Ö), bide publikoaren izena, etxe zenbakia edo puntu kilometrikoa, hala badagokio, eta abar.

277-316 HELBIDEAREN DATU OSAGARRIAK: Beharrezkoa bada, eremu honetan jarriko da helbidea bere osoan identifikatzeko beharrezkoak diren gainerako datuak.

317-346 HERRIA/HIRIA: Helbidea kokatuta dagoen herriaren edo hiriaren izena jarri behar da.

347-376 PROBINTZIA/ERREGIOA/ESTATUA: helbidea ondo identifikatzeko beharrezkoa gertatzen bada, eremu honetan adieraziko da helbidea kokatuta dagoen probintzia, erregioa, estatua, departamentua edo bestelako banaketa politiko edo administratiboa.

377-386 POSTA KODEA (ZIP): helbidearen posta kodea jarri behar da. (eremu alfanumerikoa, 10 posizioa)

387-388 HERRIALDE KODEA: helbideari dagokion herrialde edo lurraldearen kodea jarriko da, abenduaren 2ko 1060/2008 Foru Aginduak III. eranskinean jasotzen dituen gakoaren arabera. 2 posizioa eremu alfabetikoa

389-401 Numerikoa

JASANARAZITAKO KONTURAKO SARRERAK

Eremu numerikoa, 13 posizioa.

"IZAERA" eremuan (2. motako erregistroko 99 posizioa) E balioa (gauzako errenta) jarri denean eta "ATXIKIPENAK ETA KONTURAKO SARRERAK" eremuak edukia duenean (2. motako erregistroko 121.etik 133.erako posizioak), eremu honetan adierazi behar da gauzako sarien ordaintzaileak jasotzaileari egin dizkion konturako sarreraren zenbatekoa.

Zenbatekoak EUROTAN adierazi behar dira

Eremu hau bitan banatuta dago:

389-399 OSOA. Atxikipenen eta konturako sarreraren zenbatekoaren zati osoa (edukirik ez badu, zeroak jarriko dira).

400-401 HAMARTARRA. Atxikipenen eta konturako sarreraren zenbatekoaren zati hamartarra (edukirik ez badu, zeroak jarriko dira).

402-432

ZURIUNEA

433-452 Alfamerikoa

IFZ ZERGA EGOITZAKO HERRIALDEAN

Jasotzaileari identifikazio fiskaleko zenbaki bat eman bazaio bere zerga egoitzako herrialde edo lurraldean, zergaduna egoitzako herrialde edo lurraldean identifikatzen duten digitu numeriko eta alfabetikoak jarri behar dira.

453-460 Numerikoa

JAIOTEGUNA

"Nortasunaren gakoa" eremuan (2. motako erregistroaren 36. posizioan) F jarri bada, jasotzailearen jaioteguna adierazi behar da. Idatzi urtearen lau digituak, hilaren biak (01 - 31) eta egunaren biak (01 - 12), UUUUHHEE formatuaren arabera

453-454 EGUNA Numerikoa Bi posizio.

455-456 HILEA Numerikoa Bi posizio.

457-460 URTEA Numerikoa Lau posizio.

461-497 Alfamerikoa

JAIOTERRIA

50 posizioko eremu alfamerikoa

"Nortasunaren gakoa" eremuan (2. motako erregistroaren 36. posizioan) F jarri bada, jasotzailearen jaioterrria adierazi behar da.

Eremu hau bitan banatzen da:

461-495 HIRIA: 35 posizio. Jaioterrria jarri behar da, eta beharrezkoa izanez gero, probintzia, erregioa edo departamentua.

496-497 HERRIALDE KODEA: 2 posizioko eremu alfamerikoa. Jasotzailearen jaioterrriari dagokion herrialde edo lurraldearen kodea jarriko da, betiere «Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga. Establezimendu iraunkorrik gabeko ez-egoiliarrak. Ez-egoiliarren kontuen aitorten informatibo» izeneko 291 eredu onartu eta haren aurkezpen moduak eta herrialde eta lurraldeen kodeen zerrenda ezartzen dituen abenduaren 14ko 567/2016 Foru Aginduaren III. eranskinean agertzen diren herrialde eta lurraldeen gakoaren arabera.

498-499 Alfamerikoa

JASOTZAILEAREN EGOITZA FISKALEKO HERRIALDE EDO LURRALDEA

Jasotzailearen egoitza fiskaleko herrialde edo lurraldearen kodea jarriko da, betiere «Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga. Establezimendu iraunkorrik gabeko ez-egoiliarrak. Ez-egoiliarren kontuen aitorten informatibo» izeneko 291 eredu onartu eta haren aurkezpen moduak eta herrialde eta lurraldeen kodeen zerrenda ezartzen dituen abenduaren 14ko 567/2016 Foru Aginduaren III. eranskinean agertzen diren herrialde eta lurraldeen gakoaren arabera.

500

ZURIUNEAK

* Zenbateko guztiak positiboak izango dira.

* Edukirik ez duten eremu numerikoak zeroz bete behar dira.

* Edukirik ez duten eremu alfamerikoa eta alfamerikoa bete gabe utzi behar dira

* Eremu numeriko guztiak eskuinaldetik hasiko dira betetzen, eta ezkerretik zeroz beteiko dira.

* Eremuaren azalpenean kontrakorik esaten ez bada, eremu alfamerikoa eta alfamerikoa guztiak ezkerretik hasiko dira betetzen, eta eskuinaldetik zuriuneak utziko dira. Hizki larriak erabiliko dira, karaktere berezirik gabe eta bokaletan azenturik jarri gabe.



2. motako erregistroa: ESTATUAN, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO FORU ALDUNDIETAN ETA NAFARROAKO FORU KOMUNITATEAN SARTUTAKO ATXIKIPENEN ETA KONTURAKO SARREREN BANAKAPEN ERANSKINA.

«Gakoa» eremuan (2. motako erregistroa den jasotzailearen erregistroaren 100-101 posizioak) zerrendatutako errenta motak balio hauetako bat hartzen duenean: 1 balioa (dibidenduak eta entitateen funts propioetako bestelako partaidetza errentak, bakarrik «Ordainketa» eremuak [2. motako erregistroa den jasotzailearen erregistroaren 148 posizioa] 1 balioa hartzen badu); 2 balioa (hirugarrenei kapital propioak lagatzetik eratorritako interesak eta beste errenta batzuk, bakarrik "Ordainketa" eremuak [2. motako erregistroa den jasotzailearen erregistroaren 148 posizioa] 1 balioa hartzen badu); 3tik 11ra bitarteko balioak (kanonak); 12 balioa (kapitalizazio eragiketen eta bizitza edo baliaezintasun aseguruaren kontratuen kapital higigarriaren etekinak); 13 balioa (aurretik aipatu gabeko kapital higigarriaren beste etekin batzuk); 22 balioa (administratzaileen eta administrazio kontseiluetako kideen ordainsariak), edo, ordaintzailea pertsona juridikoa edo establezimendu iraunkorra izanez gero, errenta bat aldi berean bi lurraldeetan lortutakotzat jo daitekeenean; betiere bat etortzeagatik Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren 22.Lau artikuluan eta 23.Bi artikuluan edo Nafarroako Foru Komunitatearekiko Hitzarmen Ekonomikoaren 30.2 artikuluaaren bigarren paragrafoan aipatzen diren errentekin; bete beharko da «Estatuan, Euskal Autonomia Erkidegoko foru aldundietan eta Nafarroako Foru Komunitatean sartutako atxikipenak eta konturako sarrereren banakapen eranskina» («F» orri mota), baldin eta atxikipenen edo konturako sarrereren ordainketa Estatuaren eta foru ogasunen artean banatzen bada eragiketa bolumenaren arabera.

ERREGISTROAREN IDENTIFIKATZAILEA EDO ORDENA ZENBAKIA» eremuak (2. motako erregistroaren 77-84 posizioak) eduki bera izango du jasotzailearen erregistroan (2. motako erregistroa) eta «Estatuan, Euskal Autonomia Erkidegoko foru aldundietan eta Nafarroako Foru Komunitatean sartutako atxikipenen eta konturako sarrereren xehakapen eranskinean» («F» orri mota), xedapen honi dagokiona.

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUEN AZALPENA
1	Numerikoa	ERREGISTRO MOTA "2" konstantea.
2-4	Numerikoa	AITORPEN EREDUA "296" konstantea
5-8	Numerikoa	EKITALDIA 1. motako erregistroan posizio hauetarako adierazitakoa jarri behar da.
9-17	Alfanumerikoa	AURKEZLEAREN IFZ. 1. motako erregistroan posizio hauetarako adierazitakoa jarri behar da.
18-26	Alfanumerikoa	JASOTZAILEAREN IFZ Haren edukia izango da JASOTZAILEAREN IFZ eremuan (jasotzailearen erregistroa den 2. motako erregistroaren 18-26 posizioak) IDENTIFIKATZAILE EDO ORDENA ZENBAKIrako jarri dena izango da (eranskin honen 77-84 posizioak) jaso dena izango da, erregistro honi dagokiona.
27-35	Alfanumerikoa	LEGEZKO ORDEZKARIAREN IFZ Haren edukia izango da LEGEZKO ORDEZKARIAREN IFZ eremuan (jasotzailearen erregistroa den 2. motako erregistroaren 27-35 posizioak) IDENTIFIKATZAILE EDO ORDENA ZENBAKIrako jarri dena izango da (eranskin honen 77-84 posizioak) jaso dena izango da, erregistro honi dagokiona.
36	Alfabetikoa	F/J.

Haren edukia izango da F/J eremuan (jasotzailearen erregistroa den 2. motako erregistroaren 36 posizioa) IDENTIFIKATZAILE EDO ORDENA ZENBAKIrako jarri dena izango da (eranskin honen 77-84 posizioak) jaso dena izango da, erregistro honi dagokiona.

37-76 Alfamerikoa

JASOTZAILEAREN DEITURAK ETA IZENA EDO SOZIJETATE IZENA.

Haren edukia izango da ABIZENAK ETA IZENA EDO SOZIJETATE IZENA eremuan (jasotzailearen erregistroa den 2. motako erregistroaren 37-76 posizioak) IDENTIFIKATZAILE EDO ORDENA ZENBAKIrako jarri dena izango da (eranskin honen 77-84 posizioak) jaso dena izango da, erregistro honi dagokiona

77-84 Alfamerikoa

ERREGISTROAREN IDENTIFIKATZAILEA EDO ORDENA

Jasotzailearen erregistroa identifikatzen du. ERREGISTRO IDENTIFIKATZAILEA EDO ORDENA ZENBAKIA eremuaren eduki bera jarriko da, 2. motako erregistroan (jasotzailearen erregistroa) 77-84 posizioetan dagoena eta eranskin honetan zehaztutako jasotzailearen erregistroarekin bat datorrena

85-149 Numerikoa

ESTATUAN, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO FORU ALDUNDIETAN ETA NAFARROAKO FORU KOMUNITATEAN SARTUTAKO ATXIKIPENAK ETA KONTURAKO SARRERAK

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren 22.Lau eta 23.Bi artikuluetan eta Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren 30.2 artikulua bigarren paragrafoan aipatzen diren errenten kasuan, atxikipenen eta konturako sarreraren sarrera Estatuaren eta foru ogasunen artean banatzen bada eragiketa bolumenaren proportzioan, entitate ordaintzaileak azpiero mu hauek bete beharko ditu, administrazio eskudun bakoitzari egindako atxikipenak eta konturako sarrerak bereizita identifikatzeko, «Atxikipenak eta konturako sarrerak» eremuan (2. motako erregistroa den jasotzailearen erregistroaren 121-133 posizioak) aipatutako etekinen gainean egindako konturako diru sarrerak eta egindako atxikipen guztien zenbatekoak jartzeaz gain:

85-97 ESTATUKO OGASUNA: 13 posizioko eremu numerikoa. Eremu honetan zeinurik eta koma hamartarrik gabe adierazi behar da Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren 30.2 artikuluko bigarren paragrafoan eta Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren 22.Lau eta 23.Bi artikuluetan aipatutako etekinei dagozkien atxikipenen eta konturako sarreraren zenbatekoa, Estatuko Ogasun Publikoan efektiboki sartutakoa. Beste edozein kasutan, eremu hau zeroz beteko da.

Zenbatekoak eurotan adierazi behar dira. Eremu hau bitan banatzen da:

85-95 Egindako atxikipenen eta konturako sarreraren zenbatekoaren zati osoa; edukirik ez badu, zeroak jarriko dira

96-97 Egindako atxikipenen eta konturako sarreraren zenbatekoaren zati hamartarra; edukirik ez badu, zeroak jarriko dira

98-110 NAFARROAKO FORU KOMUNITATEA: 13 posizioko eremu numerikoa. Eremu honetan zeinurik eta koma hamartarrik gabe adierazi behar da, Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren 30.2 artikuluko bigarren paragrafoan aipatutako etekinei dagozkien atxikipenen eta konturako sarreraren zenbatekoa, Nafarroako Foru Komunitatean efektiboki sartutakoa. Beste edozein kasutan, eremu hau zeroz beteko da.

Zenbatekoak eurotan adierazi behar dira. Eremu hau bitan banatzen da:

98-108 Egindako atxikipenen eta konturako sarreren zenbatekoaren zati osoa; edukirik ez badu, zeroak jarriko dira.

109-110 Egindako atxikipenen eta konturako sarreren zenbatekoaren zati hamartarra; edukirik ez badu, zeroak jarriko dira.

111-123 ARABAKO FORU ALDUNDIA: 13 posizioko eremu numerikoa. Eremu honetan zeinurik eta koma hamartarrik gabe adierazi behar da, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren 22.Lau eta 23.Bi artikuluetan aipatzen diren etekinei dagozkien atxikipenen eta konturako sarreren zenbatekoa, Arabako Foru Aldundian efektiboki sartutakoa. Beste edozein kasutan, eremu hau zeroz beteko da.

Zenbatekoak eurotan adierazi behar dira. Eremu hau bitan banatzen da

111-121 Egindako atxikipenen eta konturako sarreren zenbatekoaren zati osoa; edukirik ez badu, zeroak jarriko dira

122-123 Egindako atxikipenen eta konturako sarreren zenbatekoaren zati hamartarra; edukirik ez badu, zeroak jarriko dira

124-136 GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA: 13 posizioko eremu numerikoa. Eremu honetan zeinurik eta koma hamartarrik gabe adierazi behar da, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren 22.Lau eta 23.Bi artikuluetan aipatzen diren etekinei dagozkien atxikipenen eta konturako sarreren zenbatekoa, Gipuzkoako Foru Aldundian efektiboki sartutakoa.

Zenbatekoak eurotan adierazi behar dira. Eremu hau bitan banatzen da:

124-134 Egindako atxikipenen eta konturako sarreren zenbatekoaren zati osoa; edukirik ez badu, zeroak jarriko dira

135-136 Egindako atxikipenen eta konturako sarreren zenbatekoaren zati hamartarra; edukirik ez badu, zeroak jarriko dira.

137-149 BIZKAIKO FORU ALDUNDIA: 13 posizioko eremu numerikoa. Eremu honetan zeinurik eta koma hamartarrik gabe adierazi behar da, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren 22.Lau eta 23.Bi artikuluetan aipatzen diren etekinei dagozkien atxikipenen eta konturako sarreren zenbatekoa, Bizkaiko Foru Aldundian efektiboki sartutakoa. Beste edozein kasutan, eremu hau zeroz beteko da.

Zenbatekoak eurotan adierazi behar dira. Eremu hau bitan banatzen da:

137-147 Egindako atxikipenen eta konturako sarreren zenbatekoaren zati osoa; edukirik ez badu, zeroak jarriko dira

148-149 Egindako atxikipenen eta konturako sarreren zenbatekoaren zati hamartarra; edukirik ez badu, zeroak jarriko dira.

150-499

ZURIUNEAK

500 Alfabetikoa

ORRI MOTA

F''konstantea.